

# San Fermín



2017  
Pamplona / Iruña  
6 al 14 de Julio / Uztailaren 6tik 14ra

DLU / GENA. 1059/2017 - MARIANILIANO EZEQUIEL COSATTI

**FESTEN PROGRAMA**  
IRUÑA. UZTAILAK 6-14



Ayuntamiento de  
**Pamplona**  
Iruñeko Udala

## FESTA MARRAZKIETAN

2017ko sanferminetako programa ofizialaren edizio honek arkeologia grafikoko ariketa xumea izan nahi du, XX. mendean zehar sanferminak irudikatzeko egin diren marrazkiei dagokienez, eta zehazkiago, ilustrazio, haur-komiki, bineta eta eleberri grafikoaz bezainbatean. Eta kasu gehienetan, ez da umore-ukitua faltako. Hemen, bada, ikusgai ditugu hala *Zig Zag* zezen-aldizkariaren azal bat (Bellón, 1926) edo *TBO* komiki herrikoia (Blanco, 1969), nola *The New Yorker* aldizkariaren *cartoon* bat (Levin, 2012), Francisco Ibáñez-en *Supermortadela*-ren azal bat (1975) edo Ventura & Nietoren *Grouñidos en el desierto* istorioaren Julius *El Jueves* aldizkarian (1990). Horiez gain, programaren osagarri, omenaldia egin diegu aurten 100 urte beteko zituen *TBO*-ren marrazkilari gogoangarri hainbati, hala nola Urda, Coll, Raf eta Muntanyolari, eta horretarako marrazki batzuk sortu ditugu haien estiloari atxikita.

## ARGITARATZAILEA

Iruñeko Udala

## HITZAURREA

Iruñeko Gaitero eta txistularien Udal Bandak

## KONTZEPTUA ETA DISEINUA

KEN Diseño gráfico y editorial

## INPRIMAKETA

Gráficas Ulzama

## LEGE-GORDAILUA

NA 671-2014

## SANFERMINETAKO KARTELA

Maximiliano Ezequiel Cosatti

## ZEZEN-FERIAREN KARTELA

José Antonio Eslava

## ARGAZKIAK

Bernet, Resano, Blanco, Dr. Alderete, Bellón, Pilarín, Ibáñez, Ventura, Boix, Levin, Patiño/KEN

## HEDAPENA ETA BANAKETA

Iruñeko Udala

Kulturako, Hizkuntza Politikako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorra

Descalzos k. 72. 31001 Iruña

cultura@pamplona.es

www.pamplona.es

Nazioarteko interes turistikoko jaiak, 1980az geroztik

© Iruñeko Udala


PAPER  
BIRZIKLATUA



SAN FERMIN 2017

**FESTEN PROGRAMA**

IRUÑA. UZTAILAK 6-14



ECOVORIO  
ECOEMBES  
SIG DE RAE

BAR SAVOY



Ayuntamiento de  
**Pamplona**  
Iruñeko Udala

## HOBEZINA HOBETU NAHIAN



**B**agoaz egutegiaren orriak aletzen, eta, bat-batean, bestela bezala, konturatu egiten gara ez dela deus geratzen sanferminetarako. Urtero berdin gertatzen zaigu, balirudike urteko garai honen aurreko hilabeteak espero baino azkarrago joaten zaizkigula. Lerro hauek argitaratzerako, Iruñeko jendeek edukiko dute, jada, festen gertutasuna iragaritzen duten ageriko seinale horien guztien berri: beroaren eta egun luzeagoen etorrera, gure parke eta lorategietako udaberri-oparotasuna, barrakak eta Sarasate pasealekuko tonbola instalatzeko aurretizko lanak, entzierroko hesiak paratzeko probak, kontzertuen iragarkiak, kultur programa, galtzada-harri zaharretan burrunba ibiliko diren ganadutegiak iragarkia... Are gehiago, honezkero jakinen dugu, baita ere, zer karteak iragarriko dituen festak eta nor hautatu duten herritarrek uztailearen 6an txupinazoa jaurtitzeko. Eta ilusio berrituko sentimendu hori nonahi agertuko da, gazte-koadrilen solasaldietan hasi eta albistegietako goiburuetan buka, terraza eta tabernetako musikan ere barne, hura ere gutxika sanfermin-kutsuaz blaitzen joanen baita.

Eta uztailearen 6a helduko da, eta orduantxe jarriko dugu hiria hankaz gora, eta gure errituak, gure ordutegiak eta gure eguneroko bizitza ordenatua, halabeharrez, aldatuko dira 9 egunetan zehar. Ongietorria eginen diegu bisitariei, Nafarroatik beretik heldutako herrikideei, mugako probintzietatik, urrunagoko lurraldeetatik eta, are, beste kontinenteetatik etorritakoei. Eta gure izaeraren eta gure ohituren onena partekatuko dugu haiekin, bi milurteko gure Iruñearen irudirik hobereña hartuko dutelakoan.

Zuoi guztioi festa onak opatzeko une honetan, alkate honek bere desioa heldu nahi dizue sanferminak errespetuz eta gizalegez bizi ditzagun, pertsonak orok aukera izan dezagun, berdintasunean, eguneko zein gaueko giroaz gozatzeko, betiere horregatik festaren partaide sentitzeari utzi gabe eta errespetatuak bezain seguruak sentitzeari utzi gabe.

Horrela, bada, ez izan zalantzarik, gureak munduko festarik hobereñak izanen dira.

**Joseba Asiron**  
Iruñeko Alkatea



### Txistulari eta Gaiteroen Udal Banden agurra

## FESTA PAREGABE HAUETAN, BIBA MUSIKA!

**N**eska-mutilek “Iruñeko ferietan, iragan sanferminetan” ibilki ahotan! zeren eta festak ailegatzearekin, boza, instrumentuak edo biak batera baitira festaren egile: boz eta poz. Horregatik hain zuzen, berririk duguno, eite orotako musikariak horra dira San Ferminen festa paregabeetan: txuntxuneroak, gaiteroak, dultzaineroak, danbolinteroak, gitarrak, arrabitak, itsuak bihuela edo beste soinean, Baigorriko arpa-jotzaileak, koblakariak, sinfoniak... Berenez beren, edo hiriaren bizkar heldu dira Iruñeko eta Nafarroako patroiaeren festara, mugez haraindi ere aditza duen feriara.

Sanferminez mintzo, iruinseme eta alaba kuttunok, aurtengo uztailaren 7an Txistulari eta Gaiteroen Udal Bandek urteurrena ospatuko dugu; orduan, 1942an, lotu gintzaizkion bideari Udalaren eskutik, iruindar orenen jostagarri eta gozagarri gerta gintezen, dantzetan, karrika-inguruetan eta udalbatzaren agerraldi protokolarioetan partale, eta kultura musikalaren bermetan. Udalkume horiek aitzina egin zuten, eta urteen urtez, egundaino, festaren edo protokoloaren une bereziki arraitsuetan gaita eta txistuaren musika gozatu izan du hiriak, elkarlan musikal publiko-pribatu estuari esker.

“Hoy 7 de julio, suenan las campanas, suben los cohetes, música sin fin...”, hala diote San Ferminen oilarite soinuaren lehen konpasek, eta horri men, konplituak gara Iruñeko Txistulari eta Gaiteroen Bandak, musikari doakionean bederen. Aurtengo urtea berezia heldu da, 75 urte egingen baitira hirian bizirik diraugula; hor dira dianak igande guztiz, dantzarako udako arratsaldeak Gazteluko plazan eta, nola ez, sanferminak, Udalaren errituan eta haren protokolo instituzional duin eta handian.

Diamantezko ezteiotan oroitzapenak eta eskerronak trumilka darabilzkigu. Horien zerrendak luze joko luke eta denak ezin oroitzuz, kanpoan geldituko litzaizkiguke hainbat, nahi gabe ere. Bada, zeinahi gisaz, halabeharrez agerian aipatu beharrekorik. Horietarik bat Tolosako Udal Txistulari Banda dugu, ehun urte luze baitira, etenik gabe, gure artean ditugula festei dagokien ospea emanez. Beste aldetik Lizarrako gaiteroak ditugu, izan ere, ehun urtetik gora eman dituzte Iruñeko festetan, gaitaren lekua bermatuz.

Eta azkenik, nola ez publikoki eskerrak eman, eskainitako laguntzagatik, musika kontuetan edo sormenezko abentura koreografikoetan neke-izerdietako bidaide, eta protokoloetan zein desfile zibiko-erlijiosoetan lagun ditugun musikari eta dantzari suhar eta distirant horiei; adiskide onak diren Udal Dantza Taldeari eta ‘La Pamplonesa’ Udal Musika Bandari! Horiei guztiei, esker mila.

Beraz, iruindar edo bisitari, kanpotar zein bertako: besteri eta norberari zor zaion errespetuz, ongi gozatu festak, ezinago ongi pasatu, gaina jo gainezka egin gabe eta bego hortxe!

Esker mila denei; Udal, hiritar, bisitari... agur-gutun hau, zuen alde! biba zuek!

¡Viva San Fermín! ¡Gora San Fermín! ¡Biba Iruñeko festak!  
¡Viva las fiestas de Pamplona!



# 6, OSTEGUNA

## TXUPINAZOA

12:00

**TXUPINAZOA.** Udaletxea. Pantaila erraldoien bidez emanen da Antoniutti parkean, Sarasate pasealekuan, Karlos III. aren etorbidean, Gazteluko plazan eta Foruen plazan.  
**MUSIKA KALEAN.** Irteera Udaletxe plazatik eta Sarasate pasealekutik.

13:30

**FOLKLORE-JAIALDIA.** Foruen plaza. Taldeak: Amaiur, Ardantzeta, Basakaitz, Duguna, Harizti, Iruña taldea, Larratz, Mikelats, Muthiko Alaiak, Oberena, Ortzadar, Txori Zuri eta Monteagudoko dantza-taldearen parte-hartze berezia. Dantzak: Monteagudoko makil dantza, Dantzari dantza (Agintariena, Zortzinangoa, Ezpata joku txikia, Banangoa, Binangoa, Ezpata joku nagusia, Launangoa, Makil dantza edo Makil jokua eta Txontxongiloa), *Musikoak* Jauzia eta Larrindantza.

17:00

**ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.** Konpartsaren irteera Autobus-geltokitik.

18:00

**HAUEK FESTAK HAUEK!** Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.  
**BIRJOLASTU INAUGURAZIOA.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 21:00ak arte.

18:30

**BURTZIEN ZEZENKETA.** Zezen-plaza.

19:00

**DANTZALDIA.** Gazteluko plaza. DJ Oihan Vega. 20:30 arte.

20:00

**SAN FERMINEN BEZPERA NAGUSIAK.** San Fermin kaperera (San Lorenzo eliza). Iruñeko Katedraleko Musika Kaperak eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoak Mariano Garcíaren eta Fernando Remacharen Bezpera tradizionalak interpretatuko dituzte. Zuzendaria: Kaperamaisua.

**TXOTXONGILOAK.**

Askatasun plaza. *El cazador de dragones* txotxongilo-antzerkia (gaztelaniaz). La Otra konpainia.

**KONTZERTUA.** Compañía plaza. Rawan Diallo Band.

21:00

**EUSKAL DANTZAK.** Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita.  
**ANTZERKIA KALEAN.** Karlos III.aren etorb. *Encierro infantil.* Recortauro konpainia (Madril).

21:45

**ZEZENSUZKOA.** San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

23:00

**SANFERMINETAKO SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XVIII. EGILE LEHIAKETA.** Ziadadela. Diseinugilea: Luis Brunchú Martí. Brunchú Pyro Experience su-etxea. Godella (Valentzia).

23:30

**KONTZERTUA.** Foruen plaza. 23:30, Tremenda Jauría. 00:30, Amparanoia (*El poder de Machín*: 20 urte).  
**DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Impacto orkestra. 01:30 arte.  
**KONTZERTUA.** Gazteluko plaza. Gozategi (25 urte).

23:45

**KONTZERTUA.** Compañía plaza. Vieux Farka Touré.

24:00

**MUSIKA KALEAN.** Irteera Udaletxe plazatik.



*Viva San Fermín.* Uztaila, 1978. GUK Taldea (Pedro Osés, Ernesto Murillo "Simonides", Joaquín Resano eta Luis Garrido). Azala. Egilea: Joaquín Resano.

¡RAMBA! AQUÍ EN PAMPLONA NO CONOCEN  
PROBLEMA DEL APARCAMIENTO.  
¡TODA LA CALLE SIN UN COCHE.



¡OIGA FORASTE



¿POR QUÉ? YO NO VEO NINGUNA SEÑAL  
QUE LO PROHIBA.



SUBA UN MOMEN  
Y LE DIRÉ EL P



PUES PORQUE POR ESTA CALLE PASA EL ENCIERRO.

# 7, OSTIRALA

## SAN FERMIN!

06:45

**DIANAK.** Txapitela kaletik eta Zezen-plazatik abiatuta.

07:00

**ZALDI-AZIENDAREN FERIA.** Agustindarren industrialdea. 15:00ak arte.

08:00

**ZEZEN-ENTZIERROA.** Festetako lehena.

09:30

**ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.** Konpartsaren irteera Ezpeletaren jauregitik (Kale Nagusia).

10:00

**SAN FERMINEN PROZESIOA.** Udalbatzak Kabildoa jasoko du eta San Fermin kaperara abiatuko da. Santuaren ohorezko Meza Nagusia. Iruñeko Artzapezpikua eta Katedraleko Kabildoa buru egongo dira, eta Katedraleko Musika Kaperak, Iruñeko Orfeoia eta orkestra arituko dira. Zuzendaria: Kapera-maisua.

11:30

**HAUEK FESTAK HAUEK!** Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte.

**BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte.

12:00

**MUSIKA KALEAN.** Irteera Labrit pilotalekutik, San Nikolas kaletik eta Descalzos kaletik.

17:30

**PLAZAKO ZALDUNEN, MANDAKOEN ETA MUSIKA-BANDAREN DESFILEA.** Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino.

18:00

**HAUEK FESTAK HAUEK!** Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte. **BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 21:00ak arte.

18:30

**MUSIKA KALEAN.** Jota-erronda. Udaletxe plaza. **ZEZEN-FERIAREN LEHEN ZEZENKETA.** Zezen-plaza.

19:00

**DANTZALDIA.** Gazteluko plaza. En EsenZia orkestra. 20:30 arte. **DANTZAK.** Sarasate pasealekua. Ribaforadako makil-dantza. Makil-dantza eta jota. 20:00ak arte.

20:00

**DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Oceanic orkestra. 22:00ak arte. **TXOTXONGILOAK.** Askatasun plaza. *Gorgorito y su hermano Garrafito en la India* (gaztelaniaz). Maese Villarejoren txotxongiloak. **KONTZERTUA.** Compañía plaza. Javi P3z -MusikaMundiala set-.

21:00

**EUSKAL DANTZAK.** Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita. **ANTZERKIA KALEAN.** Karlos III.aren etorb. *Vaya Circo*, Kanbahiota konpainia (Madril).

21:45

**ZEZENSUZKOA.** San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

23:00

**SANFERMINETAKO SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XVIII. EGILE LEHIAKETA.** Zitudadela. Diseinugilea: Edouard Gregoire. ArtEventia Pyrotechnie Evénement su-etxea. Saint Arnoult en Yvelines (Frantzia).

23:30

**KONTZERTUA.** Foruen plaza. 23:30, Tipitako. 00:30, Andre Reyes featuring Gipsy Kings. **DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Oceanic orkestra. 01:30 arte. **DANTZALDIA.** Gazteluko plaza. Serafin Zubiri En EsenZia orkestra. 02:30 arte.

23:45


**KONTZERTUA.** Compañía plaza. Pascuala Ilabaca & Fauno.

24:00

**MUSIKA KALEAN.** Irteera San Nikolas kaletik.



TBO haur-aldizkaria (Bartzelona). 610. zk. Uztaila, 1969. Azala. Egilea: Josep Maria Blanco Ibarz (Bartzelona, 1926).



# 8, LARUNBATA

06:45

**DIANAK.** Kale Berritik eta Zezen-plazatik abiatuta.

08:00

**ZEZEN-ENTZIERROA.** Festetako bigarrena.

09:30

**ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.** Konpartsaren irteera Ezpeletaren jauregitik (Kale Nagusia).

11:30

**HAUEK FESTAK HAUEK!** Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte. **BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte.

12:00

**MUSIKA KALEAN.** Irteera Udaletxe plazatik, Labrit pilotalekutik, Descalzos kaletik eta San Gregorio kaletik.

**JOTA-KANTALDIA.** Sarasate pasealekua. Voces de los Burgos

**HERRI-KIROLAK.** Foruen plaza. Nafarroako Trontzalarien Txapelketa (1. kategoria). Nafarroako Trontzalarien Txapelketa (emakumeak). Aimar Irigoyen harri-jasotzailearen erakustaldia. Trontza-proba (abiaduraz).

13:00

**MUSIKA-BANDAK.** Gurutzeko plaza. Buñuelgo Musika Banda.

17:30

**PLAZAKO ZALDUNEN, MANDAKOEN ETA MUSIKA-BANDAREN DESFILEA.** Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino.

18:00

**HAUEK FESTAK HAUEK!** Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte. **BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 21:00ak arte. **MUSIKA KALEAN.** Udaletxe plaza.

18:30

**ZEZEN-FERIAREN BIGARREN ZEZENKETA.** Zezen-plaza.

19:00

**DANTZALDIA.** Gazteluko plaza. Superhollywood orkestra. 20:30 arte. **BERTSO-SAIOA.** Sarasate pasealekua. Aimar Karrika, Jon Maia, Julio Soto eta Uxue Alberdi. Aurkezlea: Maider Ansa. 20:00ak arte.

20:00

**DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Conexión orkestra. 22:00ak arte. **TXOTXONGILOAK.** Askatasun plaza. *Gorgorito en el fondo del mar* (gaztelaniaz). Maese Villarejoren txotxongiloak. **KONTZERTUA.** Compañía plaza. Dj Budin -Kumbia vinyl set-.

21:00

**EUSKAL DANTZAK.** Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita. **ANTZERKIA KALEAN.** Karlos III.aren etorb. *Mutación bacteriológica*, Brotons konpainia (Jerez de la Frontera).

21:45

**ZEZENSUZKOA.** San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

23:00

**SANFERMINETAKO SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XVIII. EGILE LEHIAKETA.** Ziadadela. Diseinugilea: José Vicente Caballer Villacañas. Hermanos Caballer Pirotécnicos su-etxea. Almenara (Castelló).

23:30

**KONTZERTUA.** Foruen plaza. 23:30, Lágrimas de Sangre. 01:00, Vendetta.

**DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Conexión orkestra. 01:30 arte.

**DANTZALDIA.** Gazteluko plaza. Superhollywood orkestra. 02:30 arte.

23:45

**KONTZERTUA.** Compañía plaza. Kumbia Queers.



*Black is Beltza.* Eleberri grafikoa. Egileak: Fermin Muguruza, Harkaitz Cano eta Dr. Alderete. Ilustrazioak. Egilea: Jorge Alderete (Argentina, 1971). Talka Records & Films, 2014.

# 9, IGANDEA

## BAIONAREN ETA HIRI SENIDETUEN EGUNA

06:45

**DIANAK.** Zapateria kaletik eta Zezen-plazatik abiatuta.

08:00

**ZEZEN-ENTZIERROA.** Festetako hirugarrena.

09:30

**ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.** Konpartsaren irteera Autobus-geltokitik.

11:00

**JAUZIEN JAIA.** Gazteluko plaza.

11:30

**HAUEK FESTAK HAUEK!** Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte.

**BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte.

12:00

**MUSIKA KALEAN.** Udaletxe plazatik abiatuta. **JOTA-KANTALDIA.** Sarasate pasealekua. "Hermanas Flamarique" Tafallako Jota Eskola eta Rondalla Tafallesa.

**HERRI-KIROLAK.** Foruen plaza. Nafarroako Aizkolarien binakako Txapelketa. Nafarroako Gurdi-jasotzaileen Txapelketa. Inaxio Perurena harri-jasotzailearen erakustaldia.

13:00

**MUSIKA-BANDAK.** Gurutzeko plaza. Harmonie Bayonnaise **TXISTULARIEN ALARDEA.** San Jose plaza. Txistularien 58. alarde-kontzertua. *Mugaren bi Aldeetan.*

17:30

**ZALDUNEN, MANDAKOEN ETA MUSIKA-BANDAREN DESFILEA.** Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino.

18:00

**HAUEK FESTAK HAUEK!** Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.

**BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 21:00ak arte. Musika kalean. Jota-erronda. Udaletxe plaza.

18:30

**ZEZEN-FERIAREN HIRUGARREN ZEZENKETA.** Zezen-plaza.

19:00

**DANTZALDIA.** Gazteluko plaza. Tarantella orkestra. 20:30 arte.

**DANTZA.** Sarasate pasealekua. Otsagabia. Otsagabiko Muskildako Amaren dantzak. 20:00ak arte.

**MUSIKA KALEAN.** San Saturnino kaletik eta Estafeta kaletik abiatuta.

20:00

**DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Meteoro 2.0 orkestra. 22:00ak arte. **TXOTXONGILOAK.** Askatasun plaza. *Etxe sorginduaren misterioa* (euskaraz). Bagabiga antzerki-taldea. **KONTZERTUA. JAZZFERRIN.** Compañía plaza. New Contours.

21:00

**EUSKAL DANTZAK.** Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita. **ANTZERKIA KALEAN.** Karlos III.aren etorb. *Gypsy Circus*, Kull D Sac konpainia (Valladolid).

21:45

**ZEZENSUZKOA.** San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

23:00

**SANFERMINETAKO SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XVIII. EGILE LEHIAKETA.** Ziadadela. Diseinugilea: Marco Orzella. Orzella Fireworks su-etxea. Altipiani di Arcinazzo (Italia).

23:30

**KONTZERTUA.** Foruen plaza. 23:30, Zea Mays.

01:00, El Columpio Asesino. **DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Meteoro 2.0 orkestra. 01:30 arte.

**DANTZALDIA.** Gazteluko plaza. Tarantella orkestra. 02:30 arte.

23:45

**KONTZERTUA. JAZZFERRIN.** Compañía plaza. Charenée Wade. "Offering: music Of Gil Scott-Heron & Brian Jackson".

24:00

**MUSIKA KALEAN.** Irteera Udaletxe plazatik.



Zig-Zag zezen-aldizkaria (Madril). 45. zk., 1924. Azal irudiztatua. Egilea: Antonio Bellón Uriarte (La Carolina, 1904 - Madril, 1991).



# 10, ASTELEHENA

## HAURREN EGUNA

06:45

**DIANAK.** Merkatuko kaletik eta Zezen-plazatik abiatuta.

08:00

**ZEZEN-ENTZIERROA.** Festetako laugarrena.

09:30

**ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.**

Konpartsaren irteera Autobus-geltokitik.

11:00

**HAURREN LORE-ESKAINAZA SAN FERMINI.** Aduanako zokoa.

11:30

**HAUEK FESTAK HAUEK!**

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte.

**BIRJOLASTU.** Taconera.

Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte.

12:00

**HAURREN DANTZA JAIALDIA.**

Gazteluko plaza **MUSIKA KALEAN.** Irteera Descalzos kaletik, Karlos III.aren etorbideetik eta Autobus-geltoki zaharretik. **JOTA-KANTALDIA.** Sarasate pasealekua. Voces Riberas. **HERRI-KIROLAK.** Foruen plaza. Nafarroako Txingarerute Txapelketa (gizonak). Nafarroako Txingarerute

Txapelketa (emakumeak). Nafarroako Zama-jasotzaileen Txapelketa.

13:00

**MUSIKA-BANDAK.** Gurutzeko plaza. Arangurengo Banda. **MUSIKA KALEAN.** Sarasate pasealekutik abiatuta.

17:30

**PLAZAKO ZALDUNEN, MANDAKOEN ETA MUSIKA-BANDAREN DESFILEA.**

Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino.

18:00

**HAUEK FESTAK HAUEK!**

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.

**BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 21:00ak arte.

18:30

**ZEZEN-FERIAREN LAUGARREN ZEZENKETA.** Zezen-plaza.

19:00

**DANTZALDIA.** Gazteluko plaza. Ingenio orkestra. 20:30 arte.

**HAURREN DANTZA JAIALDIA.**

Sarasate pasealekua. *Petresku etzi ez etsi* (haurrendako ikuskizuna, bertsoek, musikak, umoreak eta antzerkiak bat eginda). 20:00ak arte.

20:00

**DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Niágara orkestra. 22:00ak arte.

**TXOTXONGILOAK.** Askatasun plaza. *Gorgorito contra los fantasmas* (gaztelaniaz). Maese Villarejoren txotxongiloak.

**GAZTE EREMUA** (12-17 urte). Foruen plaza. Musika, Djak, karaokea eta beste zenbait jarduera... Gonbidatu berezia: Judith Jaso (ItsJudith), youtuberra, @JudithJaso **KONTZERTUA. JAZZFERRIN.** Compañía plaza. Mario Fernandino Quartet.

21:00

**EUSKAL DANTZAK.** Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita. **ANTZERKIA KALEAN.** Karlos III.aren etorb. *Carabin Caraban*, Almozandia konpainia (Zaragoza-Iruña).

21:45

**ZEZENSUZKOA.** San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

23:00

**SANFERMINETAKO SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XVIII. EGILE LEHIAKETA.** Ziadadela. Diseinugilea: Chelo Zarzoso Lara. Pirotecnia Zarzoso su-etxea. Altura (Castelló).

23:30

**DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Niágara orkestra. 01:30 arte.

**DANTZALDIA.** Gazteluko plaza. Ingenio orkestra. 02:30 arte.

**GAZTE EREMUA.** Foruen plaza. Kontzertua: Javier Erro eta haren banda.

23:45

**KONTZERTUA. JAZZFERRIN.** Compañía plaza. Lionel Belmondo & Marco Bellizzi. Boîte à musique.


24:00

**MUSIKA KALEAN.** Irteera Estafeta kaletik.



# 11, ASTEARTEA

## ZAHARREN EGUNA



06:45

**DIANAK.** San Saturnino kaletik eta Zezen-plazatik abiatuta.

08:00

**ZEZEN-ENTZIERROA.** Festetako bosgarrena.

09:30

**ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.** Konpartsaren irteera Ezpeletaren jauregitik (Kale Nagusia).

10:45

**ZAHARRENDAKO MEZA.** San Fermin kaperara.

11:30

**HAUEK FESTAK HAUEK!** Askatasun plaza. Hurrendako jarduerak. 14:00ak arte.

**BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte.

**MUSIKA KALEAN.** Descalzos kalea.

12:00

**ZAHARREN EGUNEN KONTZERTUA.** Jotakantaldia. Sarasate pasealekua. Yoar eta Jus la Rocha errondailak.

**HERRI-KIROLAK.** Foruen plaza. Nafarroako Aizkolarien Txapelketa (3. kategoria). Nafarroako Trontzalarien Txapelketa (kadeteak). Proba Konbinatuen erakustaldia (kimuak).

13:00

**MUSIKA-BANDAK.** Gurutzeko plaza. Artaxoako Banda.

17:30

**PLAZAKO ZALDUNEN, MANDAKOEN ETA MUSIKA-BANDAREN DESFILEA.** Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino.

18:00

**HAUEK FESTAK HAUEK!** Askatasun plaza. Hurrendako jarduerak. 21:00ak arte.

**BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 21:00ak arte. **MUSIKA KALEAN.** Joterronda. Karlos III.aren etorb.

18:30

**ZEZEN-FERIAREN BOSGARREN ZEZENKETA.** Zezen-plaza.

19:00

**DANTZALDIA.** Gazteluko plaza. Jamaica orkestra. 20:30 arte.

**DANTZAK.** Sarasate pasealekua. Ortzadar. Nafarroako dantzak. 20:00ak arte.

**MUSIKA KALEAN.** Estafeta kaletik eta Descalzos kaletik abiatuta.

20:00

**TXOTXONGILOAK.** Askatasun plaza. *Los toros del encierro* (gaztelaniaz). Maese Villarejoren txotxongiloak. **GAZTE EREMUA** (12-17 urte). Foruen plaza. Musika, Djak, karaokea eta beste zenbait jarduera.

**KONTZERTUA. JAZZFERMIN.** Compañía plaza. Miguel Villar Pintxo Hirukotea.

20:30

**MUSIKA-EMANALDIA.** Gurutzeko plaza. Tamara. 22:00ak arte.

21:00

**EUSKAL DANTZAK.** Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita. **ANTZERKIA KALEAN.** Karlos III.aren etorb. *Rezikletas*, Turukutupa konpainia (Gasteiz).

21:45

**ZEZENSUZKOA.** San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

23:00

**SANFERMINETAKO SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XVIII. EGILE LEHIAKETA.** Ziadadela. Diseinugilea: Evgeniia Khan. Center of Fireworks Khan su-etxea. Kaliningrado (Errusia).

23:30

**DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Stylo Music orkestra. 01:30 arte.

**DANTZALDIA.** Gazteluko plaza. Jamaica orkestra. 02:30 arte.

**GAZTE EREMUA.** Foruen plaza. Go!azen karaoke-emanaldia. Autografoen sinadura.

23:45

**KONTZERTUA. JAZZFERMIN.** Compañía plaza. Michel Portal eta Josetxo Goia-Arribe. Baiona-Iruña senidetze-kontzertua.

24:00

**MUSIKA KALEAN.** Irteera Kale Nagusitik.

# 12, ASTEAZKENA

06:45

**DIANAK.** Kale Berritik eta Zezen-plazatik abiatuta.

08:00

**ZEZEN-ENTZIERROA.** Festetako seigarrena.

09:30

**ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.** Konpartsaren irteera Ezpeletaren jauregitik (Kale Nagusia).

11:30

**HAUEK FESTAK HAUEK!**

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte.

**BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte.

12:00

**JOTA-KANTALDIA.** Sarasate pasealekua. Tuterako "Raimundo Lanás" Jota Eskola.

**HERRI-KIROLAK.** Foruen plaza. Sokatirako San Fermin 4 x 4 Txapelketa mistoa. Emakume aizkolarien erakustaldia. Kañamares anaien erakustaldia (taulak egitea eta enborrak aitzurraz moztea).

**MUSIKA KALEAN.** San Frantzisko plazatik, San Domingo kaletik (Nafarroako Museoa) eta Descalzos kaletik.

13:00

**MUSIKA-BANDAK.** Gurutzeko plaza. Zangozako Banda. **MUSIKA KALEAN.** Sarasate pasealekutik abiatuta.

17:30

**PLAZAKO ZALDUNEN, MANDAKOEN ETA MUSIKA-BANDAREN DESFILEA.** Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino.

18:00

**HAUEK FESTAK HAUEK!**

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.

**BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 21:00ak arte.

18:30

**ZEZEN-FERIAREN SEIGARREN ZEZENKETA.** Zezen-plaza.

19:00

**DANTZALDIA.** Gazteluko plaza. Kresala taldea. 20:30 arte.

**DANTZA ETA ANTZERKIA.**

Sarasate pasealekua. *Txapela buruan eta dantza munduan.* Eidabe konpainia.

20:00

**DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Paraíso orkestra. 22:00ak arte.

**TXOTXONGILOAK.** Askatasun plaza. Harritzeko ipuinak: *Tartalo eta sorgina* (euskaraz). Bihar Taldea.

**GAZTE EREMUA** (12-17 urte). Foruen plaza. Musika, DJak, karaokea eta beste zenbait jarduera.

**KONTZERTUA. JAZZFERMIN.** Compañía plaza. Descarga Libre 4tet.

21:00

**EUSKAL DANTZAK.** Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita. **ANTZERKIA KALEAN.** Karlos III.aren etorb. *Moonlight Jugglers*, Todo Zancos konpainia (Bartzelona).

21:45

**ZEZENSUZKOA.** San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

23:00

**SANFERMINETAKO SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XVIII. EGILE LEHIAKETA.** Ziadadela. Diseinugilea: Tania Fernández Fernández. Pirotecnia Pibierzo su-etxea. Villaverde de la Abadía (León).

23:30

**DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Paraíso orkestra. 01:30 arte.

**DANTZALDIA.** Gazteluko plaza. Kresala taldea. 02:30 arte.

**GAZTE EREMUA.** Foruen plaza. Kontzertua: Brigada Improductiva.

23:45

**KONTZERTUA. JAZZFERMIN.** Compañía plaza. De cerca. Josemi Carmona, Javier Colina & Bandolero.



Ventura & Nieto. *Grouñidos en el desierto*. Istorioa, El Jueves aldizkarian argitaratu emana (1990). Enrique Venturaren marrazkia (Madril, 1946)

# 13, OSTEGUNA

06:45

**DIANAK.** Txapitela kaletik eta Zezen-plazatik abiatuta.

08:00

**ZEZEN-ENTZIERROA.** Festetako zazpigarrena.

09:30

**ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.** Konpartsaren irteera Ezpeletaren jauregitik (Kale Nagusia).

11:30

**HAUEK FESTAK HAUEK!** Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak.

14:00ak arte.

**BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik.

12:00

**MUSIKA KALEAN.** Irteera Udaletxe plazatik eta Descalzos kaletik.  
**JOTA KANTALDIA.** Sarasate pasealekua. La Ribera Canta.  
**HERRI-KIROLAK.** Foruen plaza. Nafarroako Ingudejasotzaileen Txapelketa. Motozerralarien XIX. San Fermin Saria. Zama-jaurtitzailen erakustaldia.

13:00

**MUSIKA-BANDAK.** Gurutzeko plaza. Fustiñanako Banda.

17:30

**PLAZAKO ZALDUNEN, MANDAKOEN ETA MUSIKA-BANDAREN DESFILEA.** Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino.

18:00

**HAUEK FESTAK HAUEK!** Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.  
**BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik.

21:00ak arte.

**MUSIKA KALEAN.** Jota-erronda. Txapitela kaletik abiatuta.

18:30

**ZEZEN-FERIAREN ZAZPIGARREN ZEZENKETA.** Zezen-plaza.

19:00

**DANTZALDIA.** Gazteluko plaza. Nueva Etapa orkestra. 20:30 arte.  
**BERTSO-SAIOA.** Sarasate pasealekua. *Ez da kasualitatea.* Bertsolariak: Alazne Untxalo, Miren Amuriza, Onintza Enbeita eta Saioa Alkaiza. Aurkezlea: Amaia Agirre.

20:00

**DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Euro Show orkestra. 22:00ak arte.  
**TXOTXONGILOAK.** Askatasun plaza. *Aprende a tiempo* (gaztelaniaz). Bihar Taldea.  
**GAZTE EREMUA** (12-17 urte). Foruen plaza. Musika, Djak, karaokea eta beste zenbait jarduera.  
**KONTZERTUA.** Compañía plaza. La Nabe All Stars.

21:00

**EUSKAL DANTZAK.** Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita.  
**ANTZERKIA KALEAN.** Karlos III.aren etorb. *Ulterior el Viaje*, Tiritirantes Circo Teatro konpainia (Burgos).

21:45

**ZEZENSUZKOA.** San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

23:00

**SANFERMINETAKO SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XVIII. EGILE LEHIAKETA.** Ziadadela. Diseinugilea: Fernando Macedo. Macedos Pirotecnia su-etxea. Santão-Felgueiras (Portugal).

23:30

**DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Euro Show orkestra. 01:30 arte.

**DANTZALDIA.** Gazteluko plaza. Nueva Etapa orkestra. 02:30 arte.

23:45


**KONTZERTUA.** Compañía plaza. The Skatalites.  
**GAZTE EREMUA.** Foruen plaza. DJ Txurru.



Haurrendako liburutegi berezia. *El encierro*. Marco argitaletxea (Bartzelona). 50eko urteak. Marrazkia. Egilea: Emili Boix Pagès (Bartzelona, 1908 - Caracas, 1976).

# 14, OSTIRALA

## GAIXOA NI!



"I'm thinking of doing Pamplona this year."

06:45

**DIANAK.** Merkatuko kaletik eta Zezen-plazatik abiatuta.

08:00

**ZEZEN-ENTZIERROA.** Zortzigarrena, festetako azkena.

09:30

**ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.** Konpartsaren azken irteera Ezpeletaren jauregitik (kale Nagusia).

10:45

**SAN FERMINEN ZORTZIURRENA.** Udaletxe plaza. Udalbatza San Lorentzo parrokiara joanen da, elizkizunean parte hartzera. Bertan Katedraleko Musika Kapera eta ganbera-orkestra arituko dira.

11:30

**HAUEK FESTAK HAUEK!** Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte.

**BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte.

12:00

**MUSIKA KALEAN.** Irteera Karlos III.aren etorbideetik. **JOTA-KANTALDIA.** Sarasate pasealekua. Tudela Canta. **HERRI-KIROLAK.** Foruen plaza. Nafarroako Harri-jasotzaileen Txapelketa. Iker Vicente eta Ruben Saralegi aizkolariaren erakustaldia (kana-enborra). Motozerrariaren erakustaldia (zurezko irudiak).

13:00

**MUSIKA-BANDAK.** Gurutzeko plaza. Murchanteko Banda. **AGURRA ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSARI.** Udaletxe plaza.

17:30

**PLAZAKO ZALDUNEN, MANDAKOEN ETA MUSIKA-BANDAREN DESFILEA.** Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino.

18:00

**HAUEK FESTAK HAUEK!** Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte. **BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 21:00ak arte.

**MUSIKA KALEAN.** Udaletxe plaza. Jota-erronda. **MAZEDONIA KALEJIRA.** Sanferminetako postrea. Ibilbidea: Udaletxe plaza, Mercaderes, Txapitela, Gazteluko plaza eta Karlos IIIa, Askatasun plazaraino. Itzulua: Karlos IIIa, Estafeta eta Gazteluko plaza.

18:30

**ZEZEN-FERIAREN ZORTZIGARREN ZEZENKETA, FESTETAKO AZKENA.** Zezen-plaza. **DANTZALDIA.** Gazteluko plaza. Oxabi taldea. 20:30 arte.

19:00

**ANTZERKIA.** Sarasate pasealekua. *Piratas de secano.* Xip Xap konpainia. 20:00ak arte.

20:00

**TXOTXONGILOAK.** Askatasun plaza. *La flor de la esperanza* (gaztelaniaz). Teatro Bagabiga. **DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Raza Azteca nazioarteko mariachia. 22:00ak arte.

21:00

**EUSKAL DANTZAK.** Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita.

21:45

**ZEZENSUZKOA.** San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

22:00

**MUSIKA KALEAN.** Irteera San Frantzisko plazatik, eta bukaera Gazteluko plazan.

23:00

**SANFERMINETAKO SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XVIII. EGILE LEHIAKETA.** Ziadadela. Diseinugilea: Alfonso Baños Muñoz. Pirotecnia Alpujarreña su-etxea. Ugíjar (Granada).

24:00

**SANFERMINETAKO AZKEN EKITALDIA.** Udaletxe plaza. Gaixoa ni!



*The New Yorker* aldizkaria (Estatu Batuk). 2012-06-18. Bineta. Egilea: Arnie Levin (New York, 1938).

# ZEZEN-FERIA 2017


UZTAILAK 5 - 14



## UZTAILAK 5, ASTEAZKENA

20:00  
Sei zezenko.

### GANADUTEGIA

 El Parralejo. Zufre (Huelva).

Dibisa: zurixka eta berdea.  
Xakia: piku-hostoa ezkerreko belarrian, eta eskuineko belarria osorik.


### NOBILLEROAK

Javier Marín, Jesús Enrique Colombo eta Toñete.

## UZTAILAK 6, OSTEGUNA

18:30  
Sei zezen, adar kamustudunak.

### GANADUTEGIA

 El Capea. San Pelayo de Guareña (Salamanca).

Dibisa: zuri, gorrin eta horia.  
Xakia: akatsa bi belarrien behealdean.


### BURTZIKARIAK

Pablo H. de Mendoza, Leonardo Hernández eta Roberto Armendáriz.

## UZTAILAK 7, OSTIRALA

18:30  
Sei zezen.

### GANADUTEGIA

 Hros. de Cebada Gago. Medina Sidonia (Cádiz).

Dibisa: gorria eta berdea.  
Xakia: uzaia bi belarrietan.

### TOREATZAILEAK

Juan Bautista, Javier Jiménez eta Román.

## UZTAILAK 8, LARUNBATA

18:30  
Sei zezen.

### GANADUTEGIA

 José Escolar Gil jauna. Lanzahíta (Ávila).

Dibisa: zuria eta gorria.  
Xakia: urtxulua bi belarrietan.


### TOREATZAILEAK

Eugenio de Mora, Pepe Moral eta Gonzalo Caballero.

## UZTAILAK 9, IGANDEA

18:30  
Sei zezen.

### GANADUTEGIA

 Puerto de San Lorenzo. Tamames (Salamanca).

Dibisa: gorria eta horia.  
Xakia: Bi belarri osoak.


### TOREATZAILEAK

Curro Díaz, Paco Ureña eta José Garrido.

## UZTAILAK 10, ASTELEHENA

18:30  
Sei zezen.

### GANADUTEGIA

 Fuente Ymbro. San José del Valle (Cádiz).

Dibisa: berdea.  
Xakia: lantzapunta bi belarrietan.

### TOREATZAILEAK

Juan José Padilla, El Fandi eta Manuel Escribano.

## UZTAILAK 11, ASTEARTEA

18:30  
Sei zezen.

### GANADUTEGIA

 Jandilla. Mérida (Badajoz).

Dibisa: urdina.  
Xakia: urtxulua bi belarrietan.


### TOREATZAILEAK

Miguel Ángel Perera, Cayetano eta Andrés Roca Rey.

## UZTAILAK 12, ASTEAZKENA

18:30  
Sei zezen.

### GANADUTEGIA

 Victoriano del Río Cortés. Guadalix de la Sierra (Madril).

Dibisa: beltza eta horia.  
Xakia: akatsa bi belarrietan.


### TOREATZAILEAK

Sebastián Castilla, Alberto López Simón eta Ginés Marín

## UZTAILAK 13, OSTEGUNA

18:30  
Sei zezen.

### GANADUTEGIA

 Núñez del Cuervo. Vejer de la Frontera (Cádiz).

Dibisa: berdea, zuria eta gorria.  
Xakia: Lourdendua, eskuineko belarrian eta laiategia, ezkerrekoan.

### TOREATZAILEAK

Antonio Ferrera, Alejandro Talavante eta Andrés Roca Rey.



# ENTZIERROAN KORRIKA EGIN

## OHARRAK

**ENTZIERROAREN IBILBIDEA** San Domingo kalea, Udaltxe plaza, Mercaderes kalea, Estafeta kalea, Telefónica, Kailejoia eta Zezen-plaza.

**ARRISKUA** Entzierroa esperientzia paregabea da ikusleendako eta, areago, zezenen aitzinetik korrika egiten dutenendako. Arriskua eta gaitasun fisikoa dira ikuskizun honen ezaugarri nagusiak.

**INFORMAZIOA** Entzierroan korrika egin nahi eta eskarmentu gutxi duten korrikalariak lasterketa arriskutsu honen ezaugarrien berri jakin behar dute. Halaber, beren eta aldamenekoen segurtasunaren alde hartu beharreko babes-neurriak ere ezagutu behar dituzte.

**PRESTAKUNTZA FISIKOA** Entzierroan ezin du edozeinek parte hartu: beharrezkoak dira sosegua, erreflexuak eta prestaketa fisiko ezin hobea. Inork ez du parte hartu behar baldintza horiek bete ezean. Izan ere, arriskua handia da.

**TARTE BAT BAINO EZ** Ezinezkoa da entzierroaren bide osoa egitea; lasterkariak zein tarte jo egokiago eta hori hautatu behar dute bertan korrika egiteko.

**ADINEZ NAGUSI** 18 urtetik behar dute debeku dute korrika egitea.

**EKIPAMENDU EGOKIA** Ezinbestekoa da, norbere segurtasunaren hobe beharrez, jantzi eta oinetako egokiak eramatea.

**TRABARIK EZ** Oztopo izan daitekeen objekturik gabe egin behar da lasterka, hots, bizkar-zorro, kamera, telefono mugikor eta halakorik gabe.

**MUGA-ORDUA** Korrikalariak goizeko 07:30 baino lehenago sartu behar dute ibilbidera. Eta uztailearen 7an, larunbatean eta igandean, 07:15 baino lehen.

**TOKIKO POLIZIA** Entzierroan korrika egin nahi dutenek egon beharko dute Tokiko Poliziak osatutako hesiek mugatzen dituzten tartetan, eta zehatz-mehatz bete beharko dituzte udaltzainen aginduak, parte-hartzaile guztien segurtasunaren hobe beharrez.

**BAZTERRAK ETA ATARIAK** Debeku da, ezen hagitik arriskutsua baita, zezenak irten aitzinetik ibilbideko bazter, angelu itsu, atari edo establezimenduetan babestea.


**AURRERA ZUZEN** Aurrera zuzen egin behar da korrika, zezenen eta beste korrikalarien aitzin gurutatu edo gelditu gabe.

**EZ ZEZENIK UKITU** Zezenei ez zaie inon eta inolaz ere deitu behar, ezta haien arreta bereganatu eta haiek ukitu ere.

**AURREIKUSI NONDIK IRTENGO ZAREN**

Korrikalariak aurrez erabaki behar dute non ateratu entzierrotik, eta ibilbidearen alboetatik egin behar dute. Ez dute supituki gelditu behar, ezta hesi, atari edo antzeko batean geratu ere, ezen, hala egiten badute, lasterketa bera eta beste korrikalariak babes hartzeko aukera oztopatu baitituzte.

**HONDARRA LIBRE UTZI** Zezen-plazara sartu ahala, korrikalariak ahal den azkarren hartuko dute babes hesiaren atzean, eta hesia libre utziko diete atzetik datozenei. Ez diete zezenei deituko, eta ez dira geldituko plazako hondarrean, unaiek eta kapadunek beren lana egin ahal izan dezaten.



# ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK

## UZTAILAK 6, OSTEGUNA

17:00

### AUTOBUS-GELTOKIA

Bake plaza, Yanguas y Miranda, Gartzia Ximenez, San Ignazio, Sarasate, García Castañón, Arrieta, Karlos III.a, Gazteluko plaza, Sarasate, Taconera, Aduanako zokoa, Kale Nagusia, Errekoleten kalea, O-ko Andre Maria plaza, Sanduandia, San Lorentzo eta Kale Nagusia (Ezpeletaren jauregia).

## UZTAILAK 7, OSTIRALA

09:30

### EZPELETAREN JAUREGIA

Kale Nagusia, San Saturnino eta Udaletxe plaza. Bertatik Konpartsak Udalbatza lagunduko du Mercaderes eta Curia kaleetan barna, Kabildoaren bila, Katedraleraino. Itzulera: Curia, Mercaderes, Udaletxe plaza, San Saturnino eta Kale Nagusia, San Lorentzo elizaraino. Bertatik San Ferminen prozesioa abiatuko da kale hauetan barna: Taconera, San Anton, Zapatería, Calceteros, Udaletxe plaza, San Saturnino eta Kale Nagusia (atsedenaldia). Elizkizunak amaitutakoan, Kabildoa eta Udalbatza lagunduko ditu Katedraleraino kale hauetan barna: Kale Nagusia, San Saturnino, Udaletxe plaza, Mercaderes eta Curia kalea. Katedralera iristean, Konpartsak bertako atarian dantzatuko du. Udalbatza Curia eta Mercaderes kaleetan eta Udaletxe plazan barna itzuliko da Udaletxera. Gero, Konpartsa Ezpeletaren jauregirantz abiatuko da San Saturnino kalean eta kale Nagusian barna.

## UZTAILAK 8, LARUNBATA

09:30

### EZPELETAREN JAUREGIA

Kale Nagusia, Eslava, San Frantzisko plaza, San Migel, Sarasate pasealekua, San Ignazio, Gazteluko plaza, Karlos III.a, Ahumada Dukearen kalea, Estafeta, Telleria, San Agustin, Joan Labritekoaren kalea eta Andre Maria Erreginaren plaza (atsedenaldia). Merced, Xabier kalea, Estafeta, Amaia, Orreaga, Gartzia Ximenez, Tuter, Oliveto Kondearen etorb. eta Bake plaza (Autobus-geltokia).

## UZTAILAK 9, IGANDEA

09:30

### AUTOBUS-GELTOKIA

Bake plaza, Oliveto kondearen etorb., Tuter, Zaragozako etorb., Leire, Bergamín, Arrieta, Amaia, Leire eta Aralar (atsedenaldia Eskolapioetan). Aralar, Teobaldoen kalea, Erriberri, San Fermin, Bergamín, Galizia etorb., Tafalla, Zangoza, San Fermin, Galizia etorb. eta Foruen plaza (Autobus-geltokia).

## UZTAILAK 10, ASTELEHENA

09:30

### AUTOBUS-GELTOKIA

Foruen plaza, Gaztelugibel, Erruki Etxea, Foruen plaza, Yanguas y Miranda, Bakearen plaza, Yanguas y Miranda, Taconera, Kale Berria eta San Frantzisko plaza (atsedenaldia). San Frantzisko plaza, Ansoleaga, San Saturnino, Udaletxe plaza, Mercaderes, Txapitela, Gazteluko plaza, Sarasate pasealekua, San Migel, San Frantzisko plaza, San Frantzisko kalea eta Kale Nagusia (Ezpeletaren jauregia).

## UZTAILAK 11, ASTEARTEA

09:30

### EZPELETAREN JAUREGIA

Kale Nagusia, San Frantzisko kalea, San Frantzisko plaza, Kontseiluko plaza, Zapatería, Pozo Blanco, San Nikolas, San Gregorio, Ziudadela, Aduanako zokoa eta Errekoleten plaza (atsedenaldia). Errekoleten plaza, San Lorentzo, Jarauta, Eslava, Kale Nagusia, San Saturnino, Udaletxe plaza, Santo Domingo, Merkatuko kalea, Aldapa, Navarrería, Mercaderes, Calceteros, Udaletxe plaza, Kale Berria, Kontseiluko plaza, Zapatería, San Migel, San Frantzisko plaza, Eslava eta Kale Nagusia (Ezpeletaren jauregia).

## UZTAILAK 12, ASTEAZKENA

09:30

### EZPELETAREN JAUREGIA

Kale Nagusia, Eslava, Jarauta, San Saturnino, Mercaderes, Mañueta, Jauregiko Aldapako kalea, Maiatzaren Biaren kalea, Carmen, Navarrería eta San Jose plaza (atsedenaldia). Curia, Calderería, Xabier kalea, Estafeta, Mercaderes, Calceteros, Udaletxe plaza, Kale Berria, San Frantzisko plaza, Eslava eta Kale Nagusia (Ezpeletaren jauregia).

## UZTAILAK 13, OSTEGUNA

09:30

### EZPELETAREN JAUREGIA


Kale Nagusia, Eslava, San Frantzisko, Campana, San Saturnino, Udaletxe plaza, Calceteros, Mercaderes, Udaletxe plaza, San Saturnino, Kale Nagusia, Eslava, Jarauta eta Descalzos (atsedenaldia). Descalzos, Jarauta, San Saturnino, Udaletxe plaza, Zapatería, Pozo Blanco, San Nikolas, San Migel, Zapatería, Kontseiluko plaza, San Frantzisko plaza, Eslava eta Kale Nagusia (Ezpeletaren jauregia).

## UZTAILAK 14, OSTIRALA

09:30

### EZPELETAREN JAUREGIA

Kale Nagusia, Eslava, San Frantzisko, Kontseiluko plaza, Zapatería eta Udaletxe plaza. Hortik abiatuta, Konpartsak Udalbatza lagunduko du San Saturnino kalean eta Kale Nagusian barna, San Lorentzo elizaraino. Han, San Ferminen Zortziurrena egingen dute. Atsedenaldia, kale Nagusian. Ondoren, Konpartsak Udalbatza lagunduko du Kale Nagusian eta San Saturnino kalean barna, Udaletxeraino. Dantzak, Udalbatzaren eta Hiriaren ohoretan. Gero, Konpartsak Mercaderes, Txapitela eta Calceteros kaleetan barna jarraituko du eta Udaletxe plazara itzuliko da. Bertan, Konpartsak eta Iruñeko hurrek ADIOA egingen diote elkarri.



KENek RAFI eskainitako omenaldia



# BESTE GUNE BATZUK

## TACONERA / VISTABELLA

### KUDEATZAILEA: NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA. NAFARROA OINEZ TXOKOA

Ohi bezala, Nafarroako Ikastolek, aurten Lesakako Tantirumairu Ikastolaren eskutik, euskal kultura-tradizionala nahiz gaur egungoa-oinarri eta euskara ardatz hartuta antolatu dute jardueraprograma. Programaren bidez era askotako jardueru ugari gauzatuko dituzte, adin guztietako jendeari zuzenduak, hala nola lantegiak, ipuin-kontalariak, dantzak, bertsolariak, txistulariak, etab. Eta gauetan, estilo ezberdinetako musika-emanaldiak egonen dira: rock, DJak, erromeria-musika, etab.

## BASOTXOA

### KUDEATZAILEA: ESQUALDE ETXEEN NAFARROAKO FEDERAZIOA

Aurten berriz ere, Eskualde Etxeen Nafarroako Federazioaren kolektiboak jarduerasortak eskainiko ditu, ohi bezala, gastronomiaren eta gizarte zein kulturaren esparruetan. Aurten, baina, itxura berriztatua edukiko du. Gune plurala da, denok baitugu bertan tokia, ongi pasatzeko eta sustraiak gogora ekartzeko.

## ERREKOLETEN PLAZA

**KUDEATZAILEA: GORA IRUÑEA**  
Gunean eszenatoki bat, barra herrikoiak eta terraza bat egonen dira, bai eta mugimendu asko ere, batez ere bermutaren orduan (frijitu eta guzti)

eta arratsalde-gauean. Goizetan bertako kultura eta beste kultura batzuk oinarri izanen dituzten ekitaldiak burutuko dira. Eta egunak aurrera egin ahala giroa berotzen joanen da Iruñerriko musika taldeekin eta DJekin.

## O-KO ANDRE MARIAREN PLAZA

**KUDEATZAILEA: GORA IRUÑEA**  
Gune honetan jantoki ekologikoa izanen da, eta bertan aukera egonen da bertako produktuak dastatzeko goiz-goizetik afaldu bitarte. Eszenatoki bat eta barra herrikoia izanen dira bertan. Giro lasaia izanen da nagusi, eta bertan adin guztietako jendeari zuzendutako jarduerak eginen dira.

## ANTONIUTTI

### KUDEATZAILEA: KOLEKTIBO SOZIALAK ETA EKOLOGISTAK (TXIRIKORDA TXOSNA) ETA FAIN

Kulturarteko gune berri honetan, Iruñaldean bizi diren munduko toki ezberdinetako kolektiboak biltzen dira, elkarte eta mugimendu sozial, feminista, solidario, bakezale, ekologista eta abarrekin batera. Bestelako programazioa gauzatuko dute, eta Nafarroako produktu ekologikoak dastatzeko aukera egonen da bertan.

## MUSIKA KALEAN

San Lorentzoko dantzanteen kofradia  
Bravo maisuaren herribanda

Gracia Navarra jota-akademia eta -eskola  
Los Pamplonicas jota-eskola  
Fustiñanako jota-eskola  
Buñuel Canta jota-eskola  
elkartea  
Arguedasko jota-eskola  
Andosillako auroroak  
Tuterako jota-eskola  
Ortzadar Kultur elkarteko fanfarrea  
Ardanbera fanfarrea  
Gauerdi txaranga elkarte  
Txaranga Jarauta 69 elkarte  
Galtzagorri txaranga  
Ziripot txaranga  
Ortzadar txistularien kultur elkarte  
Lagaz Tolosako txistulari taldea  
Iruñeko gaita-akademia elkarte  
Baigorriko gaiteroen kultur elkarte  
San Lorentzoko gaiteroen elkarte  
Iruñeko gaitero dultzaineroen elkarte  
Txantreako gaiteroak elkarte  
Donibaneko gaiteroak  
Elizaga gaiteroak  
San Juan eskolako gaiteroak  
Fraile anai-arrebak gaiteroak  
Zarrabete gaiteroak  
Haizeberri dultzaineroak gaiteroak

## TREN TXIKIAK

Askatasun plazako haurparkearen eta Merindadeen plazaren artean  
Uztailak 6 (18:00 - 21:00).  
Uztailak 7 - 14 (11:30 - 14:00 eta 18:00 - 21:00)

## KONDESTABLEAREN JAUREGIA

**DUGUNA 1951-1953. IRUÑEKO DANTZARIEN GENESIA**  
Ekainak 8 - Uztailak 28

**SANFERMINETAKO KARTELAK**  
Hautatutako 24 kartel finalisten sorta.  
Ekainak 15 - Uztailak 18

**NIRE TOKIAN JARRI. NESKEK ONGI PASATZEN DUTENEAN**  
Arte garaikideko

erakusketa.  
Ekainak 28 - Abuztuak 18.  
**SANFERMINAK**  
Miguel Bergasaren argazki-erakusketa.  
Ekainak 15 - Abuztuak 18.  
Uztailak 8, 10, 11, 12 eta 13.  
Orduetgia: 11:00 - 14:00.

## GAYARRE ANTZOKIA

**THE HOLE (SANFERMINETAKO EDIZIO BEREZIA)**  
Kabareta, antzerkia, burlesquea, zirkua, musika, umorea.  
Ikuskizun dibertigarria, lotsagabea, probokatzailea...

Sorkuntza: Paco León, Yllana, LEtSGO  
Zeremonia Maistra: Cristina Medina

Ekainak 28 - Uztailak 9.  
Orduetgia:  
Ekainak 28-29 eta uztailak 4-5: 21:00  
Uztailak 2 - 9: 19:30  
Ekainak 30 eta uztailak 1, 7, 8: 19:30 eta 22:30

Sarrerak:  
Aretoa (37 €) - Palkoa (30 €) - Anfiteatro (25 €)

## BALUARTE

### 5 Y ACCIÓN

Aktoreak: Carlos Sobera, Javier Veiga eta Marta Hazas  
Komedia  
Uztailak 10 eta 11.  
Orduetgia: 21:00 / Areto Nagusia  
Sarreraren prezioa: 28 €

### HÉROES

Aktoreak: Juan Gea, Iñaki Miramón eta Luis Varela  
2006ko Lawrence Olivier komedia hoberenaren saria (Londres)  
Uztailak 12.  
Orduetgia: 21:00 / Areto Nagusia  
Sarreraren prezioa: 24 €

**SAN FERMIN JAIALDIA KANTU ZAHARREN BAZKARIA**  
Uztailak 7.  
Orduetgia: 14:00 / Erakusketa Aretoa  
Sarrerak: 55 €

**SU ETA MUSIKA GAUAK**  
Uztailak 6 - 14 (22:00 - 01:00).  
18 € (edari bat barne)  
15 € Taldeak (gutxienez 20 sarrera).  
Sarrerak, Baluarteko leihatilan.

## ESKORTAK

**BISITA ESKORTETARA**  
Uztailak 2 - 11: 11:00 - 13:15 eta 16:30 - 20:30.  
Sarreraren prezioak:  
Helduak, 3 €.  
12 urtetik beherakoak, helduren batek lagunduta, doan.

## NUEVO CASINO PRINCIPAL

**ESPARTINEN DANTZALDIA**  
Datak: uztailak 7 - 14.  
Orduetgia: 08:30 - 09:45.  
Sartzeko, gonbidapena behar da.

## LABRIT PILOTALEKUA

**ESKU PILOTA PROFESIONALEKO XLIII. SAN FERMIN TXAPELKETA**

Uztailak 7 (11:30): SAN FERMIN txapelketako Lau eta Erdiko FINALA

Uztailak 7, 10, 11 eta 12 (22:15): Finalerdiak.  
Uztailak 8 (17:30): Bikote-txapelketako finalerdia  
Uztailak 9 (17:00): Bikote-txapelketako finalerdia

Uztailak 13 (22:15): MARCO REAL ERRONKA  
Uztailak 14 (17:00): BIKOTE TXAPELKETAKO FINALA

**ERREMONTE PROFESIONALA: 2017KO ESTATUKO ZIRKUITUAREN KANPORAKETA**  
Uztailak 13 (16:30)

**PALA PROFESIONALEKO SAN FERMIN TXAPELKETA**  
Uztailak 8, 9 eta 10 (11:30)



# Pide tu vaso reutilizable

## Edalontzi berrerabilgarria eskatu

**1** Porque el respeto es fundamental  
**Errespetua ezinbestekoa delako**  
 MENOS RUIDO, MENOS SUCIEDAD, MÁS CONVIVENCIA  
 ZARATA GUTXIAGO, ZIKINKERIA GUTXIAGO,  
 ELKARBIZITZA HANDIAGOA



**2** Porque reduces residuos  
**Hondakin gutxiago sortzen duzulako**  
 EN UNAS FIESTAS COMO SANFERMINES SE RECOGEN  
 75.000 KILOS DE VASOS DE PLÁSTICO DESECHABLE  
 SANFERMINETAN 75.000 KILO BOTATZEN DA ERABILERA  
 BAKARREKO PLASTIKOZKO EDALONTZITAN



**3** Porque puedes usarlo para lo que quieras  
**Nahi duzunerako erabil dezakezulako**  
 COMO PORTABOLIS, ALTAVOZ PARA EL MÓVIL,  
 MACETA... / BOLIGRAFOAK UZTEKO, MUGIKORRAREN  
 BOZGORAILU GISA, LORONTZI GISA...

**4** Porque en realidad no te cuesta  
**Ez zaizulako kostatzen**  
 DEJAS UN EURO DE FIANZA Y TE LO DEVOLVEMOS  
 AL DEVOLVER EL VASO / EURO BAT UZTEN DUZU  
 FIDANTZAN ETA EDALONTZIA ITZULTZEAN ITZULIKO  
 DIZUGU

¡Del otro vaso, paso! **Aski dut batekin!**



**DESKARGATU**  
**IRUÑA SF**  
**MUGIKORRETARAKO**  
**APLIKAZIOA**

NON DAGO ERRALDOI ETA  
 BURUHANDIEN KONPARTSA?  
 ZER EGIN DEZAKET  
 BI ORDUREN BURUAN?  
 ZER EKITALDI  
 DAGO EGUN  
 BAKOITZEAN?  
 ZER TELEFONOTARA DEI  
 DEZAKET EZER GALDUZ GERO?



KARLOS III.EAN NAGO, ZER DAGO HEMENDIK HURBIL?

**PAMPLONA  
 LIBRE DE  
 AGRESIONES  
 SEXISTAS**

**ERASO  
 SEXISTARIK  
 GABE,  
 IRUÑA  
 ASKE**

**PAMPLONA:  
 FREE FROM  
 SEXUAL  
 HARASSMENT**

**PAMPELUNE:  
 VILLE LIBRE  
 D'AGRESSIONS  
 SEXISTES**

**112SOS NAFARROA**

**ARTA ERASO SEXISTEN KASUETAN 112.**  
 Sarbidea arta-zerbitzu guztietara: sanitarioak,  
 juridikoak, psikologikoak, polizia eta abar.  
 Eraso sexistei aurre egiteko kanpainaren  
 Argibidegunea: Gazteluko plazako etxetxea.



### TELEFONOAK

**UDAL-ARGIBIDEAK**  
 010  
 948 420 100  
 www.pamplona.es

**LARRIALDIAK**  
 112

**BESTE TELEFONO  
 BATZUK**  
 UDALTZAINGOA  
 092

**POLIZIA NAZIONALA**  
 091

**IBILGAILU-BILTEGIA**  
 948 420 444

**OBJEKTU GALDUAK**  
 948 420 619

**POSTA ETA TELEGRAFOAK**  
 902 197 197

**IRUÑEKO POSTETXEA**  
 948 207 217

**GUARDIAKO FARMAZIAK**  
 948 222 111

**IRUÑEKO AIREPORTUA (NOAIN)**  
 948 168 750

**HIRI-GARRAIOA**  
 948 423 242

**TREN-GELTOKIA**  
 902 320 320

**TAXIAK**  
 948 232 300  
 948 351 335

**AUTOBUS-GELTOKIA**  
 948 20 35 66

**INFORMAZIO-ZERBITZUA,  
 AISIALDI GUNEETAN  
 DROGA-KONTSUMOAREKIN  
 LOTURIKO ARRISKUEI  
 AURREA HARTU ETA  
 HALAKOAK GUTXITZEKO**  
 HEGOAK ELKARTEA  
 636 92 45 82  
 www.hegoak.org

**ARTA ERASO SEXISTEN  
 KASUETAN**  
 112  
 092

Sarbidea arta-zerbitzu  
 guztietara:  
 sanitarioak,  
 juridikoak,  
 psikologikoak,  
 polizia eta abar.